

## HUMANITATEAREN UNE GORENAK

# Maitasunari gorazarre



ARITZ GALARRAGA

**B**ada hitz bat Maite Lopezek Safo aurkezteko etengabe erabiltzen duena: maitasuna. Adibidez, esateko: “Saforen poesia maitasun desiraren adierazpen paradigmaticotzat hartu izan da denboran zehar”; edo, are, “maitasunaz bakarrik aritzen ez dela eta gai politikoak jorratzen dituela”. Baina, orain konturatu naiz, hitz hori, maitasuna, ez nuen behin ere erabili liburu horri buruzko zutabea. Imaginatzen dut zergatik: fama txarra duelako, ezeroso egiten zaidalako, ez naizelako erabat ulertzera iristen. Hainbestetan hitz egiten da hartaz, ordea, literaturan, zineman, batez ere pop kantetan. Zertaz ari garen maitasunaz ari garenean, horra agian galdera. Raymond Carverren ipuin bildumak erantzun handirik ez du ematen –ez baita literaturaren zeregina, erantzunak ematea; eta erantzunak ematen baditu, zalantza daukat izan daitekeen literatura ona–, jo dut Alain Badiouengana, *Éloge de l'amour* izeneko lanera.

Alde batetik, legoke maitasunaren kontrako filosofia –sexuaren moztar aringarritzat daukana, Schopenhauer eta–. Beste muturrean, maitasuna gehiegi goratzen duena –eramanez erlijioasunera, adibidez Kierkegaard–. Neroni kokatzen nintzen eszeptikoen artean –honetan ere bai, bistan da–; baina iradoki-korra egin zait Badiouk ematen dion zentzua: maitasunak eramaten zaitu zeure buruaz harago, eta proposatzen dizu mundua, zure bakartasunetik baino, biren artean esperimentatzea –berak dio bi, baina esan dezagun hiru, lau, nahi beste–. Alegia, nire bulkada soiletik haragoko mundu bat eraikitzea lekarke, eta, ondorioz, diferentzia zer den probatzea. Eraikuntza bat da, hartara, irauten duena, garaile ateratzen dena luzeki, batzuetan gogorki, espazioaren, munduaren, denboraren kontra. Uneoro jokatu behar da maitasuna, hori bai, uneoro landu, borrokatu, zaindu. Uneoro berrasmatu behar da, halaber; baina, zergatik ez, baita aldarrikatu ere tarteka. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Heriotza

Mohamed El-Bachir jatorri aljeriarreko 17 urteko gaztearen hilotza aurkitu zuten joan den astean Ibaizabalén. Arratiako Harrera Sareak eta Galdakaoko Elkarlaguntza Sareak baieztatu dute Bizkaiko Foru Aldundiaren ardurapean zegoela. Kasua argitzeko eta adin txikikoen zaintza era arduratsuan egiteko eskatu diote Diputazioari.

## Hegazti gripea

Hegaztiak hiltzea da Frantziako Gobernuak darabilen estrategia, hegazti gripearri aurre egiteko. Euskal Herriko Laborarien Batasunak ohartarazi du estrategia antzua dela eta etxalde txikiek ez dituztela kudeaketa txarraren ondorioak pairatu behar. “Etxaldean eta hazkuntzen industrializazioa gelditu behar da”.

## Portugal

Alderdi Sozialistak gehiengo osoa lortu du Portugalgo hauteskundeetan. Antonio Costa lehen ministroaren PS alderdiak botoen %41,7 eskuratu du. Urrun geratu da PSD Alderdi Sozialdemokrata kontserbadorea (botoen %27,8). Nabarmen egin du gora eskuin muturrak: hirugarren indarra da Chega (botoen %7,2).